

Tokiko Agenda 21 Batzordearen 2016ko abenduaren 15ko bileraren ondorio nagusien sintesia

- **2017ko Kudeaketa Plana:** Bidalitako proposamena onartu da, 2.541 euroko aldaketa batekin. Hurrengo egunetan 2017ko Kudeaketa eta Ekintza Planaren amaierako bertsioa bidaliko da, bai eta Udaltalde 21 Nerbioi-Ibaizabalen eta Udal bakoitzaren arteko urteko Akordioa (sinatzeko) eta lehenengo kuotaren eskabidea ere.
- **Etxeko hondakinen bilketa kontratua:** Erabaki da kontratua berriro lizitatzea bertan behera utzitako prozeduraren antzeko terminoetan, Batzordearen hurrengo bileran aurkeztuko den plegu-proposamen berria prestatzea, espedienteari hasiera ematea, eta erabaki hau prentsa-ohar baten bidez jendaurreratzea.
- **Erabilitako etxeko landare-olioa biltzeko lehiaketa:** Erabaki da zerbitzuaren lizitazioan lan egitea eta Batzordearen hurrengo bileran proposamen bat aurkeztea.
- **Organikoaren kanpaina:** Egin diren eta egiteko dauden jardueren berri eman da. Une honetara arte izena emandako etxeei eta ekoizle handiei buruzko datuak aurkeztu dira.
- **Energiaren Eskualdeko Behatokia:** Hileko txostenak udaletara bidaliko dira. Udalek proposatutako optimizazioak baliozkotu behar dituzte oraindik, eta laguntza-kontratuak ere identifikatzeko daude.
- **Tokiko Agenda 21en ebaluaketa eta jarraipenerako 9. Programa:** Programa otsailean abiaraziko da. Eskualdetik, 9 udalek hartuko dute parte euren Tokiko Ekintza Planekin, Eskualdeko Planaz gainera.
- **Hondakinen garbiketa:** Egindako 14 jardueren berri eman da: 7 boluntarioekin egin dira eta beste 7 enpresa espezializatuarekin.
- **URArekin Elkarlan Hitzarmena:** URArekin egindako bileraren berri eman da. Bertan, 2016ko Planari dagokionez egindako eta egiteko dauden jarduerak ez ezik, aurreikuspenak ere aztertu dira.
- **Informazioak:** Agenda 21ari eta Jardunbide egokie buruzko 16. Jardunaldia; BFA kontratazio Bateratua.
- **Batzordearen hurrengo bilera:** Urtarrilaren 26an, osteguna, 9:00etatik 11:00etara.